


17. atala  
**ARGIA**

- Baina lasai egon Aritz! Iurretarren gogor jarraitu zuten lanean berriz askatasuna lortu arte.

Garai ilunen berri ematea suertatu zitzaion Joneri azken egunetan: Iurreta Durangoren menpe galdu zenekoa, 36ko gerra eta diktadura... Baina hura ez zen horrela amaitzen.

- Nola jarraitu zuen historiak Jone? – Ausartu zen galdetzeraz Aritz.
- 1980ko hamarkadaren hasieran herri mugimendu oso indartsu bat sortu zuten Iurretarren. Arlo ezberdinetan eragiten zuen, kirola, kultura... Baina gauza bat zuten argi beste guztien gainetik Iurretaren desanexioa lortu beharra zuten!
- Desane... zer esan duzu?
- Des-a-ne-xi-o-a Aritz. Iurreta Durangotik banatu eta berriz herri izatea.
- Hori hori! – Poztu zen mutila!
- 1983an “Desanexiorako Gestora” izeneko taldea sortu zuten kontu hura bideratzeko eta lau urte beranduago 1987an instituzioetan herritarrei jaramon egin eta prozesu bat zabaltzea lortu zuten. Iurreta berriz herri bihurtzetik hurbil zegoen.
- Zenbat urteko lana, ez da ala Jone?
- Izugarriko lana egin zuten bai! Ez zuten atsedenik hartu Iurreta Durangoren itzaletik askatu arte.



- Eta nola egin zuten guzti hori?
- Durangoko udalarekin negoziatu behar izan zuten Iurretarren. Iurretakoak ziren Landako inguruko Iurrak Durangoren esku gelditu ziren eta San Andres eta Orozketa inguruan Durangok zituen lur batzuk aldiz Iurretarren esku gelditu ziren.
- Ha ze nahastea...
- Bai ba! Baina lortu zuten! 1989. urtean akordioa itxita 1990. urteko urtarrilaren 1ean, urteberri egunez, Iurreta herri aske bezala esnatu zen. Dantzarien “Sienprebiba” bezala Aritz, zapaldua izan arren beti bizirik!

**ARIKETA:**

- Ea gai zaren “Aitte San Migel” doinuan gure “Sienprebiba”-ri kopia bat sortzeko.